



## LH-5. MAILA 3. UNITATE DIDAKTIKOA "Hitzarmena"



### LH5-3UD.HITZARMENA: IRIZPIDE ETA JARRAIBIDEAK

**GENERO EREDU GUZTIEN GAINETIK  
BERDINTASUNAREN ILDOTIK  
TRATU TXARREN KONTRA GOGOTIK  
GIZA ESKUBIDEEN ALDETIK**

GELAKO ARGAZKIA

SINADURAK

Arlo pribatuan zein publikoan, bitzta proiektu pertsonalen aldeko eta emakumeek aurre egiten dioten bortizkeriaren aurkako konpromisoa hartu beharra lantzen da: norberaren konpromisoa eta gizarte osoarena.

| KONTZEPTU NAGUSIAK  | BEHAKETA - AZTERKETA  | ONDORIOAK - IKASKETA  |
|---|---|---|
| <p><b>1. Bizitzaren esparru guztietan proiektu pertsonalaren osagaiak identifikatu.</b> Bizitza proiektu pertsonalarekin bat datozen ideiak, balioak, jarrerak, portaerak, egoerak eta abar identifikatzea guztiz beharrezkoa da. Edozein bitzta proiekturako onak, egokiak, baliogarriak direnak ezagutzea oso garrantzitsua da.</p>   | <p><b>1. Identifikatu, bilatu, garatu.</b> Ikasleek zerrendako hitz guztiak identifikatu dituzte? Bizitzaren esparru guztietakoak? Eta guztion bitzta proiektutarako baliogarriak direnak? Zeintzuk ez? Zergatik? Neskek zein mutilek hitz berak identifikatu dituzte? Desberdintasunak egon dira? Zeintzuk? Zergatik?</p>  | <p>→ <b>Norberaren buruarekiko hitzarmena.</b> Genero etiketa eta estereotipoak gaindituz, bakoitza norbera izateko guztion konpromisoa.</p> <p>→ <b>Guztien bitzta proiektuekiko hitzarmena.</b> Nork bere bitzta proiektua aukeratzeko, garatzeko eta aldatzeko eskubidea bermatzeko konpromisoa.</p>   |
| <p><b>2. Norberaren bitzta proiektua egiteko baliabide onak eta txarrak identifikatu.</b> Bizitza proiektu pertsonala gauzatzea ez da erraza. Ahalegin handia eskatzen du, proiektu propioarekiko eta norberarekiko konpromiso irmoa. Genero ereduak betetzen ez ditugunean, presioak, deskalifikazioak eta erasoak jasa daitezke. Norbera izatea ez da biderik errazena.</p> | <p><b>2. Norberaren konpromisoa eta esfortzua.</b> Ondo identifikatu dituzte bitzta proiektu pertsonalaren aurka doazen genero estereotipoak, rolak eta ereduak? Eta alde doazen konpromisoak eta portaerak? Zeintzuk ez? Zergatik? Neskek zein mutilek proiektuaren alde eta kontrako portaera berberak seinlatu dituzte? Zeintzuk ez? Zergatik? Zer esan nahi du horrek?</p>  | <p>→ <b>Giza Eskubideen eta tratu onen aldeko konpromisoa.</b> Bizitzaren arlo guztietan emakumeek aurre egiten dioten bortizkeriaren aurkako konpromisoa.</p> <p>→ <b>Bikotean eta familian konpromisoa.</b> Genero estereotipoen aurkako eta berdintasunaren aldeko, aukeratzeko eskubidearen aldeko eta bitzta proiektu propioaren aldeko familia kide guztien konpromisoak, ahaleginak eta portaerak.</p> |
| <p><b>3. Bizitza proiektu pertsonalak babesteko eta bultzatzeko jendartea.</b> Pertsona bakoitzaren bitzta proiektu pertsonala gauzatzeko banakako konpromisoa eta ahalegina behar dira. Baina ez da nahikoa. Bikotearen eta familiaren konpromisoa eta esfortzua ere behar dira. Gizarte osoaren eta erakunde guztien hitzarmena eta baliabideak ere beharrezkoak dira.</p>  | <p><b>3. Gizarte osoaren hitzarmena, gizarte osoaren konpromisoa.</b> Zerrendako gizarte-eragile berberak aukeratu dituzte neskek zein mutilek? Eragile berberak gehitu dituzte? Beste proiektu bat idazteko eskatu zaienean, antzeko proiektuak eta laguntzeko eragileak aukeratu dituzte? Bizitzaren esparru guztietan? Ez? Zeintzuk? Zergatik? Zer adierazten du horrek?</p> | <p>→ <b>Gizartean hitzarmena.</b> Maila eta esparru guztietan, erakunde eta elkarte guztietan, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko konpromisoa, eguneroko bitzitan Giza Eskubideak defendatzeko eta tratu txarrak prebenitzeko konpromisoak, baliabideak eta ekintzak.</p>   |

→ Bizitza proiektu pertsonalak gauzatu ahal izateko, berdintasunaren eta Giza Eskubideen aldeko hitzarmena, konpromiso aktiboa.